

7 Mikrobioak

- Testuko informazioa ulertzea.
- Gaixotasunak eta higie-ne-azturak.





IRAKURRI TESTUA
POLIKI-POLIKI
ETA ADI-ADI.

Naturan izaki mordo-mordoa dago. Izaki horietako batzuk oso-oso txikiak dira eta ezin ditugu begiez ikusi. Ikusteko, mikroskopioak erabili behar ditugu. Izaki txiki-txiki horiek mikrobioak dira.

Mikrobioak toki guztietan bizi dira: ur gezatan, ur gazitan, basamortuetan, sumendietan, lurraren azpian... Mikrobio batzuk beste izaki bizidun batzuen gorputzetan bizi dira, animalien barruan eta baita gizakien barruan ere.

Mikrobio gehienek mesede egiten diote bizilekutat duten inguruneari. Hau da, lurrean bizi diren mikrobioak mesedegarriak izan ohi dira lurrerako eta gizakiongan bizi direnak mesedegarriak izaten dira gizakiontzat. Baina lurrean edo beste edozein tokitan bizi diren mikrobioak gure gorputzean sartuz gero, gaixotasunak sortzen dituzte gehienetan.



Txantxarra, adibidez, mikrobioek sortutako gaixotasun bat da. Azukrea duten jaki asko janez gero, ahoan ditugun mikrobioek hortzak hondatzen dituzten substantzia bat sortzen dute. Gastroenteritisa ere mikrobioek sortutako beste gaixotasun bat da. Uretan eta hondatutako jakietan dauden mikrobioak gure gorputzean sartzean, tripako mina, goragalea eta beherakoa eragiten dizkigute.

Beldurgarriak diruditen arren, mikrobioen eragin gaiztoaz libratzeko, ez ditugu txertoak edo zapore txarreko bestelako medikamentuak hartu behar. Gehienetan nahikoa izaten da higie-ne-ohitura onak izatea, hau da, garbitasuna zaintzea.

1 Azpimarratu testuan aipatzen diren gaixotasunak eta idatzi definizioen ondoan.




Urdaila eta hesteak kaltetzen dituen gaixotasuna. Gaixotasun horren eraginez, botaka egiten da, eta kaka bigun eta maiz egiten da: _____.

Hortzetako gaixotasuna. Horren eraginez, hortzak belztu eta zulatu egiten dira: _____.

2 Idatzi E (egia) ala G (gezurra) diren.

- ☐ Mikrobioak naturako edozein tokitan bizi dira, baita beste izakirik ez dagoen tokietan ere.
- ☐ Mikrobiok beti dira kaltegarriak.
- ☐ Mikrobioek gaixotasunak eragiten dizkigute gizakioi.
- ☐ Txantxarra eragiten duten mikrobioak azukrea duten jakietan bizi dira.
- ☐ Mikrobioen kontra, onena garbitasuna da.

3 Markatu. Hauetatik zein dira higiene-ohitura egokiak?



4 Lotu higiene-ohiturak eta ondorioak. Zertarako egin behar dira?

- | | |
|-------------------------------|---|
| Hortzak garbitu ● | ● ongi sendatzeko eta ez gaiztotzeko. |
| Egunero dutxatu ● | ● alferrik ez galtzeko eta mikrobioak ez ugaltzeko. |
| Jan aurretik eskuak garbitu ● | ● txantxarrik ez izateko. |
| Jakiak egoki kontserbatu ● | ● jakiekin batera mikrobioak ahoan ez sartzeko. |
| Zauriak desinfektatu ● | ● azaleko gaixotasunik ez izateko. |